# BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1997, maiatzak 9


## Txapela zain

# Aitor Elkoro




RENAULT

MECA

ARRASATE TL 79 50 12-79 59 99

MAIATZAREN 14TIK 21ERA

BIGARREN ESKUKO AUTOEN I. AZOKA

Adi egon, laster izango duzu gure berri!

# *Ariznoa* hotela

Eguneroko ahalegin eta aurrerapenari esker, gure bezeroentzako 28 gela atontzea lortu dugu, ia guztiak bainugelaz, telebistaz, telefonoz eta hari musikalez hornituak.



Horretaz gainera, jangela txiki, apain eta goxo bat ere badugu, zerbitzu bikainez hornitua.



Egun hauetan ezkontzera zoazten bikoteak izan nahi zaituztegu gogoan. Gure instalazioak eskeintzen dizkizuegu zuen ezkontza-gaua igarotzeko eta txanpain botila bat emango dizuegu opari.



Harreran zure esanetara eta zure beharrei erantzuteko prest izango gaituzu beti.

**Ondo pasau Bergarako jaixak!**

Ariznoa hotela
Telesforo Aranzadi, 3
Tf. 76 18 46. Fx. 76 18 48

Z E B E R R I D A ?

# EUSEBIO CAMACHO

## *Botikaria*



**- Herriko farmazietan erradiografiak batzen hasi zarete...**

- Bai, Mugarik gabeko farmazeutikoak gobernuz kanpoko erakundeak, Estatu mailan bultzatutako kanpaina da. Kontua da erradiografiek (eta argazki negatiboek ere bai) zilarra dutela; erradiografien kilo bakoitzeko 11,5 gramo zilar ateratzen da. Helburua, ahalik eta erradiografia gehien jaso eta hortik ateratzen den dirua hirugarren munduko haurrentzat bideratzea da.

Jasotako laguntza urak edangarri bihurtzeko erabiliko dira, haur asko beherako edota disenteriagatik hiltzen baitira hirugarren munduan.

**- Noiz arte iraungo du kanpaina honek?**

- Kanpaina joan zen apirilaren 23an aurkeztu zen Estatu mailan eta uztailera arte iraungo du. Bestalde, kadukatuta dauden edo erabili ezin diren medikamentuak (zabaldutako pomadak, e.a.) ere jasotzen ditugu, guztiak intzineratzeko. Eta medikamentu erabilgarrien kasuan, horien beharra duten tokietara bidaltzen dira.

***"Jasotako erradiografiekin ateratzen den dirua hirugarren mundura bideratuko da"***

I T U R R I O N E T I K

## Lanbide hastapeneko ikastaroak irailetik aurrera jarriko dira martxan

Urtero moduan, Jaurlaritzak Deba Garaiko Mankomunitatearekin batera, 16 urtetik 19 urtera bitarteko langabetuei zuzendutako Lanbide hastapen programa martxan jarriko du. Interesatuek hiru aukera izango dituzte: sukaldaritza eta bulego zerbitzuak batetik, aroztegia eta igeltserotza bestetik eta, azkenik, mekanika eta elektrizitatea. Helburua, beti bezala, gazteak makineria eta materialen erabileran trebatzea, oinarrizko prestakuntza ematea eta gazteei beren buruei buruz duten iritzia hobetzeko baliabideak eta orientazioa eskeintzea litzateke. Izen-ematea maiatzaren 13ra arte izango da zabalik Udaletxean.

E S A N D U T E

"Laster, Oñatiko Araotzen dagoen ermita baten garbiketan hasiko gara. Bergarako baserri auzoen seinalizazioa ere egin nahi dugu, jakiteko auzo bakoitzean zer monumentu dauden, zer nolako baserri izenak, zer ezaugarri dituzten..."

**XABIER LARRAÑAGA**
Kapirixoko kidea
EUSKALDUNON EGUNKARIA

●

"Bi beharrizan nagusik bultzatu gintuzten Deba Bailarako Euskara eta Kirol Zerbitzuei 1993ko martxoan, egun "Kirola Euskaraz" programa abian jartzera: euskaraz egoki prestatutako monitore-entrenatzaileenak eta euskarazko kirol materialeenak. Gure nahia beste herrialdeek ere bide horri ekitea eta "KIrola Euskaraz" nazio mailako programa bihurtzea litzateke"

**ESTEPAN PLAZAOLA**
Udaleko Euskara teknikaria
ARGIA

●

ERRIGARA

OTALDE JAUREGIA
70 Bergara
6 03 97 • Faxa: 76 08 19

**itaratzailea:** UN Elkartea.
**endaria:** Azkarate
**edakzioa:** rdo Mendibil, Elkoroberezibar
**ketazioa:** Iturbe
**lizitatea:** na Romero
**pidetzak:** a Elortza
**tuen zuzenketak:** pan Plazaola, i Laskurain, Labaien
**edakzio kontseilua:** a Elortza, el Angel Elkoroberezibar, Labaien
**nikiak:** r Rodriguez, a Ortega & Jon Alvarez, Ugalde, Azkarate
**aketa:** ntxangorri taldea
**ada:** 00 ale.
**primategia:** u Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)
**pyright:** RIGARA
**ge gordailua:** 50/91
**SN:** 0-6599

**RRIGARAk** ez du bere gain tzen aldizkarian adierazitako nen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du

Aldizkari honek uzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura ailaren laguntza jaso du



**UN PUEBLO LLAMADO DANTE`S PEAK**

Eguakitza: 22:30
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).

## Zinea

▼▼ **Roger Donaldson** zuzendariaren (*No hay salida*) akziozko filme honetan **Pierce Brosnan** (azken *Bond, James Bond agentea*) eta **Linda Hamilton** (*Terminator*) aktoreak dira erreparto buruan. *Raquel* (**Hamilton**) Dante`s Peak herriko alkatesa dugu eta berak lortutako akordio bati esker herriko ekonomiak hobera egingo du. Baina urtetan lo egon ondoren, herriko sumendia esnatuko da... Efektu berezi aipagarriak.

▼▼ **Oskorri,** Kukubiltxo eta Kepa Junkerak kontzertua eskainiko dute gaur, gaueko 10:30etan Udal Pilotalekuan, Ipintza institutuak antolatuta. Oskorrik, iaz Getxon zuzenean grabatutako diskoa, "25 kantu, urte" izenekoa aurkeztuko du. Diskoan Fermin Muguruza, Juan Carlos Perez, Pedro Guerra eta beste hainbatek kolaboratu dute.





▼▼ **Simon Arrieta Zeramika Taldea**ren erakusketa domekara arte zabalik izango da Kultur Etxean. Erakusketa honetan taldeko 12 bat lagunek hartzen dute parte, azken hilabeteetan egin duten lana erakutsiz. Astebukaeran 12etatik ordubietara eta 6etatik 8etara izango da zabalik erakustokia.

## Deiak

▼ **1927an** jaiotako bergararren anaiarteko eguna datorren ekainaren 1ean. 13:15etan hildakoen oroimenez meza izango da Santa Marinan eta 14:30etan bazkaria Antxonin. Izen-ematea Antxonin.

▼ **Gaztetxoen erakusketa.** Astebukaeretako jardueretan dabiltzan gaztetxoek egindako eskulanen eta argazkien erakusketa izango da datorren eguen eta eguakitzean, 18:30etatik 20:00etara Gartzela Zaharrean.

▼ **Jam aretoa.** *New Christ* eta *Señor No* gaur ostirala 11etan.

▼ **Brigaden aurkezpena.** Komite Internazionalistak aurtengo brigaden aurkezpena egingo du datorren eguastenean, arratsaldeko 7:30etan Kultur Etxean.

## Ogia

▼ **Domeka 11:** Ogizun.

## FARMAZIAK

▼ **Eguakitza 9:** Puy.
▼ **Zapatua 10:** Guallar.
▼ **Domeka 11:** Guallar.
▼ **Astelehena 12:** Estella.
▼ **Martitzena 13:** Mozos.
▼ **Eguaztena 14:** Camacho.
▼ **Eguena 15:** Puy.

LONBIDE
OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

Paper pintatuak - Pinturak
A. ZANGITU
☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

# Haurren euskal Jaia

## 400 bat dantzari bilduko dira domekan

**Domekan** Haurren Euskal Jaiaren XXIV. edizioa ospatuko da Bergaran. Aranzadi Ikastolak eta Xamatz dantza taldeak antolatuta, 16 urtera arteko 400 bat dantzari bilduko direla espero da. Aranzadi Ikastolako dantza taldearekin batera, Eskoriatza, Arrasate (bi talde), Aretxabaleta, Oñati, Antzuola, Soraluze, Urretxu, Altsasu, Orereta eta Gorlizeko taldeek hartuko dute parte domekako euskal jaian.



Herriko kaleak dantzariz beteko dira domekan.

### Kalean dantzan

Goizeko 10etan talde guztiak Seminarioko futbol zelaian bilduko dira eta orduerdi beranduago meza izango da Santa Marina parrokian. Handik, kalejira egingo da Seminarioko futbol patiora eta bertan dantzariei bokadilo eta edari freskagarri bana banatuko zaie. Ondoren, 11:15etatik aurrera, talde guztietako txistulariek diana joko dute herriko kaleetan zehar eta 11:45etan alkate eta alkatesa txikien ongi etorria egingo da Plazan eta 12etan, berriz, kanpoko eta bertako dantzariek kaleetan zehar dantzak eskeiniko dituzte bazkari ordurarte gutxi gora behera. Haurrak 13:30ak aldera joango dira bazkaltzera. Gehienek herriko etxeetan bazkalduko badute ere, antolatzaileek Zuloa, Madura, Gure Ametsa, Aize pe eta Umore Ona elkarteen laguntza ere izango dute.

### Alardea arratsaldean

Bazkalostean, herriko talde guztiak Seminarioan bildu eta arratsaldeko 5ak aldera San Martin plazara abituko dira. Bertan, bost t'erdietatik aurrera dantzen alardea ikusteko aukera izango da; mutilek Jorrai dantza, Txakarrankoa eta Banakoa eskeiniko dituzte; neskek, berriz, Makil txiki, Gipuzkoako zinta dantza eta Arku dantza eta, azkenik, guztiak batera, Esku dantza (Eusko dantza) eta Txulalai izenekoa. Arratsaldeko sei t'erdietan berriz ere denak batera dantzan egiteko elkartuko dira, oraingoan Txerri dantza eta Fandango eta arin-arin dantza popularrak erakutsiko dituztelarik. Eta arratsaldeko 7etan jaialdiari bukaera emango zaio. Datorren urtekoa Euskal Jaiaren 25. urteurrena, urrezko eztaiak beteko dira eta ordurako antolatzaileek lehen ediziotako giroa berreskuratzeko asmoa dute, azken urteotan ez baita lehengo erantzuna jaso jendearen aldetik. Aurten ere jendearen harrera ez da uste bezain ona izan eta antolatzaileak datorren urtean gauzak hobetzeko itxaropena daukate.


**TOKI-ONA**
**Bodegoia-taberna**
*Eguneroko janariak / Txitxizotzak*
*Kazolatxoak / Txabierroak*
Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

GORBEA — Miguel Gimbert Hernan
**AROZTEGIA / EBANISTERIA**
*Zokalo, ate, tarima eta armairuen kolokazioa eta era guztietako arotzeria-lanak*
Orain ARETXABALETAN, Basabe Polig. A-2-5 Tl/F 79 15 71

**ETXAGI**
**JATETXEA**
AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...
**Masterreka, 8 ☎ 76 53 12**

## Labegaraieta jaietan II

Zorionak, zorionak bai aurten ere Labegaraietako jai batzordekideoi beste urte batez auzoko jaiak egitera animatu eta ezarritako helburua ederki bete duzuelako, hau da, auzo jai eder batzuk egitea alegia. Zorionak are beroagoak bilakatzen dira, nere aldetik bederen, azken urte hauetan auzo jaiek izan duten beherakada ikusita ere zuon lan dinamiko eta gogor horrek, egun batzutarako bada ere, auzoari bizitasuna ekarri diolako; honela, sistema honek ezarri nahi digun zentralismo eta norbanakokeria horri aurre egiten ene ustez ederki asmatu duzuelako.

Halere, bada gauza bat argi utzi nahiko nukeena; asteburu horretan auzo horretan eta auzora bide horretan izan ziren txikizioak eta bestaldetik euskararen alde agertu ziren pintada (margo deitzea egokiago baderitzot ere) zein Euskal Herria -Estatuaren artean dagoen gatazkarekin loturik egin ziren pintada/margoak (azken hauek beraz Euskal Herrian bizi den gatazka politikoarekin lotuak daudenak dira) zaku berean sartuz salaketa gutun bat idatzi zenuten; margo erreibindikatiboak eta zentzurik gabeko txikizioak lapiko berean sartu eta egosi zenituzten gutun horretan. Honela, eduki politiko-soziala duten margoak arrazoi eta erreibindikazio gabeko txikizio zentzugabe batzurekin nahastu dira. Euskal Herriak daraman askatasunaren aldeko borroka (oraingo honetan margoen bidez espresatu dena) inongo zentzurik eta edozeini arbuiagarri zaizkigun gertaera batzurekin nahastu dira; txikizio zentzugabe hauek, herri honi eta herritarroi dagozkigun eskubide, eta herri hau osatzen dugun sektore zabal batzuren erreibindikapen batzurekin uztartu dituzue zuen gutun horretan inongo arrazoirik gabe. Arrazoirik gabe diot zeren Euskal Herrian arazo sozial edota politikorik dagoen bitartean beti egingo baitira pintadak eta ez bakarrik auzoko jaiak parean tokatzen direnean baita beste edozein okasiotan ere.

Bestalde, (gaizki ulertu ez badut) pintadak jartzen dituzue, zuen gutun horretan, auzoetako jaien desagerpenaren "arrazoi nabarmenetariko" bezala; urtetan ari naiz nere auzoko jai batzordean lanean eta izan ditugun trabarik nagusienak beti burokraten eskutatik etorri zaizkigula esan nahi nizueke, eta jaien beherakadaren arrazoietako bat pintadak direla esateari penagarria deritzot (gure auzoan ere izan ziren auzo jaietan zentzugabeko txikizioak eta noski, zenbait mingain berehala altxatu ziren Ezker Abertzalea gertatu zenaren arduradun bezala aurkeztu nahian faltsukeria eta gezur galantak botaz). Honela bada, Bergarako ezker abertzaleak zentzugabeko eta erreibindikazio gabeko txikizio hauen aurrean inongo ardurarik ez duela azaldu nahi dut, guri ere arbuiagarri zaizkigula eta inola ere ezin direla nahastu herri honek daraman borroka politiko-soziala isladatuz egiten diren pintadak eta apurtzeagatik apurtzen duten zenbait "pertsonak" egiten dituzten "ekintza heroikoak" (ero ekintza deituko nieke nik neuk). Besterik gabe eta argipen hau eginez hurrengo urtean ere jai eder batzuk antolatuko dituzuelakoan agur t'erdi.

BERGARAKO JARRAIKO MILITANTE BAT

## Irukurutzetako erromeria

Irukurutzetako erromeriaren antolatzaileok ondoko erakunde, enpresa, elkarte eta pertsonei euren laguntza eskertu nahi diegu: Bergarako Udala, Soraluzeko Udala, Manso ardoak, Felix Larrea arotza, Larreategi lehengusuak (Plazentziako soinujoleak), Osintxuko soinujoleak, Altzasu elkartea, Leturia harategia eta Alex Barruso. Guztiei eskerrak Irukurutzetako erromeria berreskuratzearen alde egindako lanagatik.

ANTOLATZAILEAK

## Gaztea + kalean egotea = delitua

Azkenaldi honetan herrian jasaten ari garen errepresio poliziala ikusirik, Txapa Irratiak komunikatu honen bidez egoera hau salatu nahi du.

Aurreko egunekoa (apirilak 24) poliziaren errepresioaren beste adibide bat besterik ez da; beraien botere, prepotentzia (bultzakadak, keinuak, armen presentzia...) eta gehiegikeriaz abusatuz. Nazkatuta gaude beraien jarrera jasan ezinarekin. Ez dugu nahi Bergara herri polizial bat bihurtu dadila. Pakian daguana, pakian laga.

Gazte izatea ez da delitua!!

TXAPA IRRATIA

## Eskertza

Aurten 87 urte egin edo egingo ditugun bergararrok eskerrak eman nahi ditugu Jubilatuetan jasotako omenaldiagatik. Era berean, eskerrak Jaungoikoari hain bizitza luzea eskeintzeagatik.

Bergarako herriari ere bere laguntza estimatzen diogu, Udaleko ordezkariak gurekin batera izan baitziren joan zen apirilaren 27ko omenaldian. San Joxepe elkarteari ere eskerrak, omenaldi honen antolaketan erakutsitako maitasunagatik, hartu gintuzten adeitasunagatik eta jasotako opariengatik. Azkenik, Jubilatuen abesbatzaren emanaldia nabarmendu nahi genuke, omenaldiari beharrezko distira eman baitzion. Guztioi eskerrak bihotz-bihotzez.

OMENDUTAKOAK

## Tiiira biraka

UNAI AZKARATE



### Algodonera eta Tavesa, eta Torunsa

Bihar 50 egun beteko dituzte huelgan Algodonera eta Tavesako langileek. Joan zen martitzenean sindikatuen eta zuzendaritzaren ordezkariek Eibarko ELAren bulegoan egindako bileraren aurretik bazirudien bi aldeen arteko ezberdintsaunak txikiak zirela, baina bileran ez zen akordiorik lortu eta negoziazioak okertu egin ziren. Gaur, ostirala, beste bilera bat egitekotan geratuta zeuden. Bestalde, Torunsako langileek huelga egin zuten astelehenean eta protesta ekitaldiak burutu dituzte astean zehar San Martin plazan. ELA, CCOO eta UGTk osatutako Langileen Batzordeak, zuzendaritzak langileen arteko soldata bereizketak egitea salatu du eta enpresa itun zuzena negoziatzea eskatu dio zuzendaritzari.

# Txernobilgo umeak udan etxean hartzeko kanpaina martxan

Era guztietako hondamendiak jasan dituzten umeak denboraldi baterako etxean jasotzeko kanpaina jarri du martxan Chernobil Elkarteak, Udaleko Ongizate Zerbitzuaren laguntzarekin. Helburua Txernobilgo hondamendia gogorren jasan duten eskualdeetako 150 ume, uztailean eta abuztuan Euskal Autonomi Elkartera ekartzea da, uda hemengo etxeetan pasa dezaten. Umeak etxeetan hartzen dituzten familiek bidaiaren gastua (50.000-60.000 pezeta) eta bi hilabete horietako umearen mantenua hartuko dute bere gain. Etxean 7 eta 16 urte bitarteko haurren bat hartu nahi duten bergararrak Udaleko Ongizate Zerbitzuarekin jar daitezke harremanetan.


Ukraniako umeek bertakoekin jolasteko aukera izango dute. ARTXIBOA.

Ekimena bultzatu duen Chernobil elkarteak Euskal Autonomi Elkartearen esparruan egiten du lan eta orain dela bi urteko udan sortu zen, Txernobilgo zentral nuklearrean izandako ihes erradiaktiboak sortutako hondamendia jasandako Ukraniako umeak beren etxeetan hartu zituzten familiek bultzatuta.

Elkarteko kideek diotenez *"esperientzia positiboa izaten da eta umeen osasunarentzat oso onuragarria, denboraldi batez euren herritik kanpo izateak oso eragin ona izaten duelako umeen osasunean. Arnasa garbia hartzeak eta kutsatu gabeko janaria jateak indartu egiten ditu, berriz ere euren ohiko girora itzultzeko"*.

### Iñigo Urkullu Bergaran



Iñigo Urkullu, EAJko parlamentarioa eta Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeak euskal presoen hurbilketari buruz landu duen txostena idatzi duena, Bergaran izan zen eguastenean Elkarriren eztabaida foroan. Bergarako Elkarriko tailerrak orain dela pare bat hilabete ekin zion berriz ere eztabaida foroei. Lehenengo bi eztabaida foroetan kale istiluak aztertu dira, eta hurrengoetan, ostera, presoen egoera izango da aztergai. Eguastenean, Iñigo Urkulluren solasaldia entzuteko aukera izan zen eta hil honen 22an, Jon Barrena Senideak-eko kidea izango da. Urkulluk adierazi zuenez, Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzarrak euskal presoak Euskal Herrira hurbiltzeko egindako planean, euskal presoak Euskal Herriko 4 espetxeetara eta inguruko probintzietako beste 10 gartzelatara ekartzea proposatuko diote Mayor Oreja Barne ministroari.

**HILDAKOAK**

**Veronica Del Mazo Lopez**
Apirilak 30, 2 hilabete.
**Piedad Bellon Romero**
Maiatzak 5, 83 urte.

**JAIOTAKOAK**

**Pedro Rudolph Martin Garciandia**
Apirilak 27.
**Irati Sanz Zubizarreta**
Apirilak 28.
**Ion Agirre Iturbe**
Maiatzak 1.
**Martin Azpiazu De La Presa**
Maiatzak 1.
**Andoni Goenaga Urkiola**
Maiatzak 3.
**Irati Eguren Balzategi**
Maiatzak 4.

## San Pankrazio

Bedelkarrek, Bergarako dendari, ostelari eta zerbitzuen elkarteak, oparia egingo die beren bezeroei astelehenean San Pankrazio egunean. Ohikoa ez bada ere, astelehen goizean denda guztiak zabalduko dira. Beraz, astelehenean Bedelkarreko kide diren establezimenduetan opari eder bat jasoko dute bezeroek.

## Graffiti lehiaketa

10 bozeto aurkeztu dira Jardunek, Akulu-AEK Euskaltegiak, Udal Euskaltegiak eta EHEk antolatutako Graffiti lehiaketara. Lau bergarar, Elorrioko bi, eta Lasarte, Zarautz eta Donostiako bana aurkeztu dira. Hauek dira Pazkuetako eguakitzean arratsaldeko 3etatik aurrera Irizar eta Kruz Gallastegiko oholetan graffitiak egingo dituztenen ezizenak: "Eman bultzada bat euskarari", "Hip-hop", "Piru", "Uta", "Rat eta Gop", "Boteko magua", "Otto-Mendi", "Guk euskaraz, zuk zergatik ez?", "Martxelo Nikola" eta "Euskaraz bizi". Epai-mahaia Jon Andoni Urisabel, Karlos Galarraga eta Iñaki Iturbe pintore bergararrek osatuko dute eta sariak zapatuko rock kontzertuan banatuko dira.

## Piszinak eguzkia hartzeko zabalik

Astelehenetik aurrera kanpoko igerilekuak zabalik izango dira eguzkia hartu nahi dutenentzat. Goizeko 10etatik arratsaldeko 6ak arte egongo dira zabalik.

## Hiru Txirlo bolo txapelketa

Gipuzkoako XXVIII. Hiru Txirlo bolo txapelketako azken jardunaldia Angiozarko Zabaletan jokatuko da maiatzaren 17an, zapatua, arratsaldeko 5etan. Txapelketa martxoaren 8an hasi zen eta Gipuzkoako hainbat bolatokitan 7 jardunaldi jokatu dira. Azkenengoa, esan bezala, Angiozarko bolatoki berriztuan jokatuko da. Bolatokia auzotarrek estali berri dute Bergarako Udalaren laguntzaz.



Luis Abajo, Juan Luis Bikuña eta Luis Laskurain txekorketaren aurkezpenean.

# Zezenzaleek antolatzen duten bosgarren txekorketa Pazkuetan

## *Txekorketa egunean bazkari herrikoia izango da*

Zezenzaleak taldeak Pazkuetako txekorketa aurkeztu zuen eguastenean Gure Ametsa elkartean. Juan Luis Bikuñak aurkezpenean adierazi zuenez, *"bosgarren edizio honetan programa erakargarria osatu nahi izan dugu. Iazko emaitzaren ondoren, Lopez-Chavesen ganadutegiarekin errepikatuko dugu eta toreroak Jose Luis Barrero salamankarra eta eta David Calleja getxotarra izango dira. Calleja Madrileko Zezen Eskolan ari da eta Barrero, berriz, zaldiekin toreatzen ari da gaur egun (pikatzailerik gabeko maila altuagoan beraz) eta dagoeneko bost belarri moztu ditu".*

Txekorketa iragartzen duen kartela Abdon Juaristik amaitzeke laga zuen koadroaren bozetoa da. Bertan, torero bat muletarekin ikus daiteke eta Bikuñak azaldu zuenez, Abdonek, atzean San Martin Plaza eta Moiua etxeko miradorea margotzeko asmoa zuen. Zezenzaleek, aurreko urteetan karteleko koadroa egin duen artista bergararra omendu nahi izan dute aurten. Juan Luis Bikuñak eta Luis Laskurainek, Beart artisten elkarteko kideak, aurreratu zutenez, datorren urtetik aurrera "Abdon Juaristi lehiaketa" deituko da, kartelean joango den margo lana aukeratzeko. Epaimahaian Zezenzaleak zein Bearteko kideak izango dira eta Luis Laskurainen ustetan 70 bat lagunen partaidetza lortu daiteke.

Bestalde, txekorketa egunean, maiatzaren 18an, Azpeitiako Udal Musika Bandaren laguntzaz, Gaspar jatetxean herri bazkaria antolatu dute zezenzaleek. Bazkalostean zezenplazarainoko kalejira musikarien laguntzaz egingo da. Txartelak (bazkaria eta txekorketarako sarrera barne) 4.000 pezetan salduko dira. Txekorketarako sarrerak 1.700 eta 2.200 pezetan salduko dira (500 pta. 14 urtetik azpikoentzat) eta entzierroetan eta arratsaldeko ikuskizunetan 200 pezeta ordaindu beharko dira. Sarrerak Canalejas, Ganbara, Zer Nai, Urrats, Usoa edo Gasparren eskura daitezke. Aurtengo zezen ekitaldien aurrekontua bi milioi pezeta ingurukoa da.

# Iñaki Gabilondo, HBko zinegotzi berria, Maite Aristegiren ordez

Iñaki Gabilondo izango da HBko zinegotzi berria Maite Aristegiren ordez. Horrela jakinarazi zuen martitzenean prentsaurrekoan HBko zinegotzi taldeak. Maite Aristegi EHNEko idazkari nagusi izendatu zuten orain dela aste batzuk eta zinegotzi kargua laga egin behar izan du.

Maite Aristegik Udalean egindako lanaren balorazioa egin zuen. Udal hauteskundeetan indar politiko botatuena izan ez arren, herriaren zati haundi bat ordezkatzeko oposizioko lanari ilusio haundiarekin ekin ziotela esan zuen. *"Hala ere, Udalean baztertuak sentitu gara eta hau salatzekoa da, gobernu taldeak herriaren zati haundi bati bizkarra eman diolako. Frustrantea da eta inpotentzia sortzen du, batez ere kontutan izanda guztiak garela herritarrak eta HBri botua emandakoei errespetua sor zaiela"* esan zuen Aristegik. HBk Udalean bizi duen egoera bestelakoa izan balitz, ez zuela onartuko EHNEko kargua esan zuen.

Iñaki Gabilondok 52 urte ditu eta Metagrako produkzio arduraduna da. Azken udal hauteskundeetan zortzigarren postuan joan zen HBko zerrendan.

Bestalde, Ertzantza eta Bergarako epilearen jarrera salatu zituen HBko zinegotzi taldeak. *"Ertzaintzak azkenaldian kalean erakutsitako jokabidearekin eta astelehenero Euskal Herria Askatuko kontzentrazioetan ezker abertzalearen kontra erakusten duen jarrerarekin aspertuta gaude, eta HBtik esan nahi dugu une guztietan aurrez aurre edukiko gaituztela"* esan zuten.

Bergarako epaileak ezker abertzaleko kideekiko erakutsitako jokabidea ere salatu zuten. Alternatiba demokratikoa banatzeagatik eta Euskal Herria Askatuko kontzentrazioetan parte hartzeagatik 25 lagunek zitazioa dutela ekarri zuten gogora HBko zinegotziek.



Iñaki Gabilondok hartuko du Maite Aristegik Udalean lagatako lekua.

## Antzuolako Bake Epailea

Antzuolan Bake Epaile kargua eta bere ordezkoa hutsik geldituko dira hemendik gutxira, kargu horiek bete dituzten pertsonek lau urteko epea bete dutelako. Hori dela eta, aurrerantzean kargu horiek bete nahi dituzten guztiek izena eman dezakete Antzuolako Udaletxean. Antzuolan bizi eta adin nagusikoak izatea dira eskatzen diren baldintzak.

## Herri bazkaria

Aurten ere Herri bazkaria antolatuko du Jardunek Pazkuetako martitzenean. Txartelak 1.000 pezetan salgai daude Pol-Polen, Kortazarren, Arranon eta Gartzela Zaharrean.

## Musika Eskola

Musika Eskolak Ohiko Batzar Orokorra egingo du maiatzaren 21ean, arratsaldeko 7etan lehen deialdian eta 7:30etan bigarrenean, Musika Eskolan. Iaz egindakoen balorazioa egingo da eta datorren urteko egitasmoen berri emango da. Halaber, Zuzendaritza Batzordea berrituko da. Ondoren, Ez Ohiko Batzarra egingo da estatutuen aldaketa onartzeko. Bazkideak Musika Eskolatik pasa daitezke estatutuak eta batzarreko txostena jasotzeko. Bestalde, zuzendaritzako kide izan nahi dutenek maiatzaren 13a baino lehen eman beharko dute izena.

## Korrika 10

Antzuolan Korrika 10aren antolaketan, diru aportazioan, antxintxika egiten nahiz beste modu batean parte hartu zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkie Idolazek. Antzuolan 262.972 pezeta batu ziren Korrika 10ean.

ARANZADI IKASTOLA
HSAOL (LOGSE) batxilergoak
**Natur eta osasun zientziak**
**Giza eta gizarte zientziak**
Aurrematrikulazio epea:
maiatzaren 5etik 16ra
Izena emateko ordutegia:
8:30-13:00 eta 15:00-18:00
Telefonoak
76 26 76-76 56 76



*"Partidu guztiak dira zailak, finala bezain gogorra lehen partidua ikusten nuen"*

# Aitor ELKORO

**Pilotari guztiek amestutako partidua jokatuko du Aitor Elkorok domekan. Aurtengo banakako txapelketako sorpresarik haundiena izan da elgetarra, bere lehendabiziko partehartzean finalera heltzea lortuz. Urte dexente pasatu dira Josean Tolosak Gipuzkoarako azken txapela lortu zuenetik. Orain, amezketarraren testigua hartzeko prest daukagu Aitor.**

**- Nola igarotzen dituzu finalaren aurreko egunak?**

- Prentsaren aldetik zoramena izan da baina urteko txapelketarik inportanteena izanda normala da prentsa gainean egotea; ahalik eta ondoen eraman behar da hori. Familiak, berriz, badaki, nik esanda, pilotari buruz ez hitzegiteko eta ez didate tabarra haundirik joten, gehienbat kalean izaten da hori: denak esaten didate nola jokatu behar dudan, txapela etxean dagoela eta horrelakoak. Baina finala partidu gogorra izango da.

**- Ze entrenamendu egin duzu egunotan?**

- Joan zen astean entrenamendu gogorrak egin nituen eta aste hau errekuperaziokoa izan da batipat. Joan zen astean frontoian, Atano III.ean, oso entrenamendu gogorrak egin nituen, bi ordu t'erdi ingurukoak, eta aste honetan, frontoian entrenamendu teknikoak (sakeak, dejadak...) egin bai baina batez ere alde fisikoa mantentzen ahalegindu naiz.

**- Finalera %100era iritsiko al zara?**

- Norberak ez du jakiten %100era noiz dagoen. Txapelketa hasieratik bi hilabate pasatu dira eta zaila da %100era egotea. Saiatu naiz forma onean egoten eta finalera momentu nahiko onean ailegatuko naizela uste dut.

**- Txapelketaren hasieran, finalera heltzearekin amets egiten al zenuen?**

- Ez. Nire helburua hasieran Patxi Eugiren kontra jokatzea, final laurdenetara heltzea zen. Eta halako ondo nengoen (fisiko aldetik, eskutatik, entrenamendu oso onak eginda) Eugiren aurka ikaragarrizko partidua irten zitzaidan, partidu borobila egin nuen. Ondoren, Errandoneari irabazi eta gero, finalera heltzea lortu nuen.

**- Finalerako bidea oso zaila izan duzu...**

- Partidu guztiak dira zailak, finala bezain gogorra lehen partidua ikusten nuen. Beste transzendentzia bat dauka finalak baina Nagoreren aurkako lehen partidua oso garrantzitsua izan zen; buruz-buru ez neukan ezer demostratuta nire burua-

## “Ez nago presionatuta. Horrelako partidu bat jokatzeko eta disfrutatzeko egun bat izan behar da, banakako finala dagoenik haundiena da eta”

ri, nahiko urduri atera nintzen egun horretan. Ondorengoan, Irazolaren kontrakoan, irabazteko gutxi eta galtzeko dena nuen eta gero Eugiren kontra nahiko lasai jokatu nuen; bera zen txapelduna eta nik, berriz, nire hasierako helburua beteta neukan. Irabaztea lortu nuen eta finalaurrekoan Errandonearen kontra nahiko lasai irten nintzen. Baina beharbada partidurik gogorrena hori izan zen; oso partidu zaila zen eta nahiko nekatuta bukatu nuen.

**- Manomanistaren historian hiru pelotari bakarrik iritsi zarete zuen lehendabiziko partehartzean banakako finalera...**

- Bueno, inportantea da hori, historiarako hor dago. Irabaziz gero bere lehen partehartzean txapela lortzen duen lehena izango nintzateke baina hori etorri behar bada etorriko da. Momentuz, iganderako nire helburua lasai egotea eta partidu ona egitea da. Eta noski, ahal bada txapela lortu.

**- Eta zure arerioa, Arretxe, nola ikusten duzu?**

- Kontrario gogorra izango da. Esaten dute ez dela ibili hain maila onean baina beharrik ere ez du izan, nire aldean oso bide erreza eduki duelako. Baina nik badakit oso pelotari konpetitiboa dela, maila haundikoa, manomanista haundia. Finalean ziur naiz bere maila emango duela eta irabazteko partidu ona egin beharko dut.

**- Zeintzuk dira Arretxeren alde onak eta txarrak?**

- Nik esango nuke alde onak gehiago dauzkala txarrak baino. Sakatu ondo egiten du, defentsa oso ona dauka eta duen gauzarik txarrena beharbada partidua gogortuz gero nekatu egiten dela izan daiteke, baina alde txar hori denok daukagu. Niri komeniko zait partidua gogortzea eta bera ni mugitzen eta erritmo haundia jartzen saiatuko da.

**- Nolako materiala komeni zaizu domekarako?**

- Berak pilota biziak aukeratuko ditu, Atano III.ean atera daitezkeen bizienak ziurrenik eta ni Errandonearen kontra erabili nuen pilota klasearen bila joango naiz: erdi botekoak, pisudunak, astunak. Bai berari eta bai niri mugitzea kostatuko zaizkigunak.

**- Atano III.a frontoia atsegin duzu?**

- Frontoi ona da, noblea, nire gustokoa. Daukan problema bat zera da: materialarekin piskat pasatuz gero errebotea oso hurbil dagoela pasatikan eta sakearekin min haundia egin daitekeela. Partidua ezerezean geratzeko arriskua egoten da horrelakoetan.

**- Zure lehendabiziko finala izateak zure alde ala kontra jokatzen du?**

- Nik uste dut alde, ez nago presionatuta. Jokatzeko desiatzen nago horrelakoetan tentsio bat egoten delako. Igual ez dut beste aukerarik izango horrelako partidu bat jokatzeko eta disfrutatzeko egun bat izan behar da, finala jokatzea pelotari batendako dagoenik haundiena da eta. Gustatuko litzaidake urtero horrelako presioa edukitzea. Presionatuta lehen partiduan egon nintzen, Nagoreren kontra jokatu eta kaleratzeko arriskua neukanean. Baina finala jokatzea urtero firmatuko nuke.

**- Horrelako partidu batean nola gainditzen dira nerbioak?**

- Horrelako finalik ez dut sekula jokatu baina momentuz lasai nago eta hori inportantea da. Presiorik ez daukat, garbi



Aitorrek Nagore, Irazola, Eugi eta Errandonea kanporatu ditu finalera heldu aurretik.

EGIN EGUNKARIA

**PATXI BASAURI.** ***Elgetako alkatea***

Aitor oso indartsu dago eta ziur txapela lortuko duela, 22 eta 13 irabaziko du nire ustez. Daukan indarrarekin txapeldun ikusten dut. Kontrakoa gertatzeko Elkorok oso gaizki eta Arretxek, berriz, oso ondo jokatu beharko lukete eta hori oso zaila da. Txapela ekarriko du Aitorrek.

**GORETTI IGARZA.** ***Elkororen emaztea***

Zer esango dut ba? Etxerako joko dut, 22 eta 16. Aitor konfidantzaz, indartsu eta gogoekin ikusten dut eta hain txapelketa ona egin eta gero txapelaren *"guinda"* besterik ez zaio falta. Hala ere, Arretxe arerio gogorra izango da. Baina etxeko saloiko bitrinan txapelarentzat tokia laga dut honez gero...

**XABIER EUSKITZE.** ***kazetaria***

Dudarik gabe, finala jokatu aurretik Elkoro izan da txapelduna, gehien demostratu duena, kontrario gogorrenak tokatu zaizkiolako eta indar erakustaldi nabaria egin duelako. Arretxek, berriz, ozta-ozta lehen mailakotzat har daitezkeen pilotarien aurrean ez du erakustaldi haundiegirik egin baina finalean kontrario gogorra izango da oso lehiakorra delako. Elkoro izan beharko litzateke faboritoa baina partidu batera izanda ez dut hain garbi ikusten. Hala ere, pronostiko bat ematekotan, Elkororen alde, 22 eta 18.

**JOSE MARI ZEZEAGA.** ***Pilotaria***

22 eta 17 Aitorren alde. Finalean oso zaila da txapeldun nor irtengo den asmatzea. Egun on bat tokatu beharra dago garaipena eskuratzeko baina Aitorrek badauzka bere aukerak. Halere, Arretxe oso arriskutsua da, oso pelotari azkarra eta joku arraroa egiten duena. Ea Aitorrek suertea izaten duen.

**JOSETXO LIZARTZA.** ***kazetaria***

Oso berdinduta ikusten dut. Partiduko erritmoa klabea izango da; Arretxek partidua bizitzea lortzen badu berak irabaziko du baina orain arte behintzat inork ez du lortu hori Aitorren kontra, musika eta erritmoa Aitorren eskutan egon dira. Elkorok asko



EGIN EGUNKARIA

daukat nire helburua beteta dudala baina, hala ere, indar guztiekin joango naiz txapelaren bila.

**- 29 urterekin, pilotari beteranotzat ala gaztetzat duzu zure burua?**

- (Barre) Edadean ez daukat 20 urte, abuztuan 30 egingo ditut baina edadean aurrera joan arren, pelotari bezala nahiko gaztea naizela uste dut. Berandu debutatutakoa naiz eta oso gutxi kastigatuta nago. 25 urterekin debutatu nuen bigarren aldiz eta oraindik erre barik nago. 20 urterekin zaila da punta-puntako kirolaria izatea. Begira ziklismoan: Indurain, Rominger, Rijs..., 30 urterekin esplotatzen dute, atletismoan ere berdin... Nik uste dut 27-32 urte bitarte horretan kirolaria bere sasoi puntu onenean dagoela. Lesioetatik ondo ibiliz gero espero dut beste sei bat urte maila on batean egotea.

**- Hurrengo urtean banakako txapelketako faboritoetako bat izango zaitugu...**

- Aurten lan gogorra egin eta finalera heldu naiz baina igual hurrengo urtean berdin lan egin eta gauzak gaizki irtetzen zaizkit, eskutatik gaizki ibili..., mila gauza gerta daitezke. Pilotari batendako inportanteena urte guztian ondo ibiltzea da. Urte guztian maila on batean egon beharra dago, ikusi Belokiri edo Eugiri gertatutakoa. Denboraldia manomanora enfokatzen dute eta gero horrelako jipoiak hartzen dituzte. Erregularra izanda beti egongo zara forman banaka jokatzeko prest. Eta

### ■ Txapela Gipuzkoara?

Elgetako Oskarbi pilota elkartean 8 urte zituenean hasi zen jokatzen eta Gipuzkoako selekzioa ordezkatu zuen maila guztietan. 1985ean GRAVN txapelketa irabazi zuen jubenil mailan banaka; hurrengo bi urteetan, ostera, 23 urtez azpikoen mailan GRAVN txapelketa irabazi zuen binaka.
Afizionatuetan, Euskadiko txapeldun izan zen banaka 1987an eta 92an, eta binaka 1990ean irabazi zuen.
19 urte zituenean, 1987. ean, profesionaletara pasatu zen Empresas Unidasen eskutik; Bergarako Udal Pilotalekuan, Pazkuetan, egin zuen debuta. Urte berean, irailean, soldaduzkara joan zen Galiziara. Herrira birritan baino ez zen etorri eta pilota ez zuen ia ikutu ere egin. Soldaduzkatik bueltan beste urtebete egon zen pilotan jokatzeke eta laga egin zuen. 22 urterekin, ordea, berriz ere jokatzen hasi zen afizionatu mailan Aloña Mendirekin. Urte onak izan zituen eta Asegarce sortu zenean, 25 urte zituela, berriz ere profesionaletara pasatzeko aukera izan zuen.
Harrezkero, eta azken bi urteetan batez ere, punta-puntan ibili da: iaz binakakoa irabazi zuen Capellanekin eta lau t'erdikoan oso ondo ibili zen, final aurrekoetan Nagoreren kontra galdu arren. Manomanoan, txapelketa nagusia lehen aldiz jokatu eta finalera heltzen den hirugarren pilotaria da, aurretik Garcia Ariño IV. eta Gorostiza bakarrik ailegatu baitira. Bidean Nagore, Irazola, Eugi eta Errandonea laga ditu. Sekulako txapelketa jokatu du eta Eugi txapelduna Labriteko kantxatik pilotakadaka atera zuen. Domekan irabazten badu, naparren azken urteetako nagusitasuna hautsi eta txapela Elgetara ekarriko du. Joxean Tolosak 1989.ean irabazi zuenetik ez da gipuzkoar txapeldunik izan, eta ordua heldu dela ematen du. Ea bada...

jotzen du, frontisean altura bilatzen du eta horrek errekuperatzeko denbora ematen dio. Biek ere errekurtso haundiak dituzte. Oraindik ere Aitorri ez zaio defenditzea tokatu eta ez dakigu nola moldatzen den horrelakoetan. Gipuzkoan entusiasmo asko dago eta dirua ere Aitorren alde dago baina zaila ikusten dut, berdintasun asko dago. 21nako berdinketa izatea nahiko genuke.

**JABI LARRAÑAGA.** ***Infernukua tabernakoa***

Ez dakit, zaila da baina Arretxeren aldeko apostua egingo nuke, 22 eta 14. Segun nolako partidua irtetzen den... Partidua azkarra izaten bada Arretxek irabaziko du eta peloteo asko egoten bada Elkoro izango da txapelduna.

**JOXEAN TOLOSA.** ***Txapeldun ohia***

Orain arte bezala jokatzen badu behintzat, Elkorok irabaziko duela uste dut, 22 eta 15eko emaitza emango nuke. Beste gauza bat da finalean izaten diren nerbioak gaindituko ote dituen Aitorrek, baina gauzak normal joanda bera izango da irabazlea, nahiz eta Arretxe kontrario gogorra izan: final asko jokatu ditu eta dena ematen duten horietakoa da. Gustatuko litzaidake Elkorok nire erreleboa hartzea.

**ANICETO UNANUE.** ***Bolu Gimnasiokoa***

22 eta 15 Aitorren alde, dudarik gabe gainera. Errez irabaziko du topera dagoelako, oso ondo gertatuta ikusten dut. Arretxek ere gogor jokatuko du domekan, hori da bere gauzarik onena, duen guztia ematen duela. Baina azken bi partiduetan erakutsitakoa baino gehiago jokatu beharko du, orain arte behintzat ez du joku apartekorik egin eta. 10. tantura arte partiduari belozidadea ematen saiatuko da Arretxe baina Aitorrek txapelketa borobila egin du orain arte eta ea errematatzen duen...

**AGUSTIN IÑARRA.** ***Pilotari ohia***

22 eta 21 Elkororen alde, pilotarentzat emaitzarik onena horixe izango litzateke. Nahiz eta jendeak kontrakoa pentsatu, Arretxe gogor dago eta konbentzituta txapela berak eramango duela. Eta normala da. Baina Elkoro ere fenomeno ikusten dut, konfidantzaz eta oso ondo gertatuta. Ea txapela janzten duen...

**JULIAN RETEGI.** ***Hamaika aldiz txapeldun***

Elkoro ikusten dut txapeldun, 22 eta 18 bere alde. Nahiz eta bere alde agertu, ez da partidu erreza izango baina garaipena berak eskuratuko duela uste dut, txapela jantziko du. Berak dominatu dezake partidua eta orduan Arretxe bolea eta sotamanoz jokatzera behartuta egongo da eta horrela asko nekatuko da Arretxe. Baina, esan bezala, partidu gogorra izango da bientzat ere.

**JOKIN ETXANIZ.** ***Pilotaria***

Aitorrek egin duen txapelketa ikusita, nire ustez behintzat, bera izango da txapelduna, oso sasoi onean dago eta gauzak ondo irtetzen bazaizkio txapela eramango du. Lehendabiziko tantuak klabeak izango dira; Arretxe partidua bizitzen ahaleginduko da eta tantu horietan Aitorrek eusten badio garaipena eskutan izango du. 22-18.

momentu txarrak pasatzea ezinbestekoa da. Belokiri, 19 urterekin, dena primeran joan zaio: txapeldun olinpikoa, debuta ere ondo, banakako txapelduna... Momentu latzik pasatu barik zegoen eta kirol guztietan horrelako poz haundi bat hartzeko, kolpe dexente hartu behar dituzu, bizitzan moduan. Hortik asko ikasten da.

**- Naparren nagusitasuna nabaria da banakako txapelketan. Ia 10 urte pasatu dira Tolosak txapela lortu zuenetik...**

- Ordua da naparren nagusitasun hori piskat gainditzeko. Gipuzkoar bat finalera heltzea inportantea da eta ea orain Tolosaren erreleboa hartzen dudan...

**- Zer egingo duzu finalaren aurretik, domeka goizean?**

- Lo egiteko ez dut arazorik izaten eta 8-9 ordu egingo dut lo. Sei t'erdiak aldera esnatuko naiz, buelta bat emango dut, korrika piskat eta gero luzaketa ariketa batzuk gorputza esnatzeko. Gosaldu 8ak aldera egingo dut, gosari fuertea egiten dut: tortilatxo bat, zereal batzuk eta fruta piskat. Eta zortzi t'erdiak aldera Donostiarantz aterako naiz.

**- Eta irabaziz gero, ze asmo daukazu?**

- Bazkaltzera joango gara Elgetako koadrila haundi bat, Antzuolako lagun batzuk ere bai, guztira 80 bat elkartuko gara. Eta arratsalde partean badirudi Elgetan harrera bat eskeiniko didatela.

**- Txapela buruan?**

- Asmoa hori da... ■



JOSEBA LEZETA

### ■ Futurologia

Zizurkilen bizi den Patxi Alkorta bergararrak zera esan zion Eusebio Unzueri, oraindik Reynolds taldeko txirrindulari afizionatua zen Miguel Induraínengatik: "Mutil horrek ez du sekula Vuelta a Españarik irabaziko". Irrifarrez gogoratzen du Patxik pasarte hura lagun artean. Indurainek bost Tour eta bi Giro irabazi arren, Patxik asmatu. Beste antzeko kontu bat. Erretiratu ondoren Joxean Tolosari omenaldia egin ziotenean, Josetxo Etxeberria Gipuzkoako Pilota Federakundeko lehendakariak zera esan zidan: "Ez diat ikusten Gipuzkoan manomanoan Joxeanen lekua bete dezakeen pelotaririk. Beharbada hemendik urte mordoxkara hire herriko mutil gazte hori izango duk txapela janzteko moduan, baina momentuan ez zegok inor". Josetxok ere asmatu egin du. Eskuz banakako lehiaketa nagusian Gipuzkoak izan dezakeen Tolosaren ondorengo txapelduna Antzuolan bizi da, nahiz eta Josetxok buruan zeukan izena ez izan Elkororena. Baina berak herriaren izena eman zuen bakarrik.
Aitor Elkorok lortu duenarekin nahikoa gozatu dugu. Bigarren mailan Bazetaren aurka, Eibarko Astelenan, 22 eta 7 galdu ondoren, negarrez ikusi omen zuten aldageletan. Harmailetan zeuden bere lagun batzuei ere malkoak ihes egin zieten. bazirudien Elkoro manomanistaren karrera han bukatu zitekeela, baina orain berriz txapelik maitagarriena -dendan bi mila pezetagatik erosi ezin daitekeena- oso gertu dauka. Patxi eta Josetxok bete betean asmatu bazuten ere, nik neuk aitortu behar dut ez nuela uste Aitorrek manomano horrenbeste jokatzen zuenik, ez behintzat Eugiren aurka jokatu zuen haina. Txapela irabazi ala galtzea beste kontu bat da. Suerte, Aitor.

# “Inpuntualitatea nekez barkatzen dut”

**Gaztetako idolo bat.**
Julian Retegi.
**Oroitzapen on bat?**
Nire lehen debuta.
**Eta txar bat?**
Profesionaletako lehen etapa.
**Frontoirik gustokoena?**
Atano III.a eta Labrita.
**Pelotan, banaka ala binaka?**
Binakakoa lasaiagoa, banakakoa gustokoagoa.
**Aurrelari bat.**
Titin.
**Atzelari bat.**
Zezeaga.
**Pelota beltzak ala zuriak?**
Berdin zait.
**Pelotariak, praka motzetan ala luzetan?**
Luzetan.



**Pelotan, goizez ala arratsaldez?**
Arratsaldez nahiago.
**Frontoia berdea ala zuria?**
Biak, ohituta nago.
**Zenbat ordu egiten duzu lo?**
8 bat.
**Janari bat?**
Menestra.
**Kolore bat?**
Urdina.
**Superstiziosoa zara?**
Batere ez.
**Kirol bat?**
Ziklismoa.
**Reala ala Athletica?**
Reala.
**Mania bat?**
Puntualitatea. Inpuntualitea nekez barkatzen dut.

# Elgetako herriak ongi etorria egingo dio domekan

Elgetako Udalak Elkorori ongi-etorri herrikoia eskeiniko dio domekan. Arratsaldeko 6etatik aurrera *Incansables* txaranga arituko da Elgetako kaleak alaitzen; arratsaldeko 6 t´erdietan Eibarko Azitaingo gasolindegian Aitor Elkororekin elkartu eta Elgetarako karabana irtengo da eta, 7etan, Elgetako plazan ongi-etorria emango zaio Aitorri. Deba eskualdeko pilotariekin ohorezko pasabidea egingo zaio, Elgetako dantzariek ohorezko aurreskua eskeiniko diote eta Udaletxeko balkoitik herritarren txaloak jasoko ditu Aitorrek. Ondoren, bertsolarien saioa ere egongo da. Era berean, zazpi t´erdietatik aurrera txarangak alaitutako txikiteo herrikoia izango da.

**Eta komunioak?**

Elgetan ez ezik, finalak Bergaran eta Antzuolan ikusmin haundia sortu du ere. Antzuolan, esate baterako, komunioetako meza-ordua aurreratu egin behar izan dute, zenbait gizonek mezetara ez joateko mehatxua egin baitute, meza eta pelota partidua ordu berean izanez gero. Bestalde, Arrola elkarteko ohizko igandeetako irteera zapatura aurreratu da oraingoan.

**20.000 duro Elkororen alde**

Badirudi domekan dirua Elkororen alde aterako dela. Bergaran badira elgetarraren jokoan itsu-itsu sinisten dutenak. Eusebio tabernariak 20.000 duro jokatzen ditu Aitorren alde. Ostegunerarte, ez zen apostu horri aurre egiteko prest inor azaldu. Arretxeren jarraitzaile gutxi omen da Bergaran. BERRIGARAn bakarra agertu da Arretxeren alde. Ausartuko ote da Eusebioren hordagoa onartzen?



23 urtez azpikoen mailan GRAVN txapelketa irabazi zuenean.



# VENTANAS SAN MIGUEL

*Ibargarai, 4 Tl. 76 12 21 Bergara*
*Iturrioz, 24 Tl. 79 78 10 Arrasate*

*Zure ongizatea babesteko gaude*



VENTANAS SAN MIGUEL

**SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).**
**NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.**
**EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.**
**AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.**
**30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.**

# Miguel ALTUNA - IPINTZA

institutuak

## 1997-98 ikasturtea
## AURREMATRIKULAZIOA

**AURREMATRIKULA EPEA:**
Maiatzaren 5etik 16ra (biak barne)
Bi institutuetan goizeko 9etatik 14etara

**HELIDEAK:**
**MIGUEL ALTUNA INSTITUTUTA**
**Ibargarai, 1 - Tfk: 76 24 91 / 76 38 40**
**IPINTZA INSTITUTUA**
**Boni Laskurain, 19 - Tfk: 76 31 42 - 43**

Informazio zabala eta
zehatzagoa nahi izanez gero
ETOR ZAITEZTE gure
**BILERA INFORMATIBO**ra

Noiz: Maiatzaren 13an arratsaldeko 7etan
Non: Miguel altuna-ko Aretoan Ibargarai,1

Aroa
Bidekurutzeta, 6 / 76 57 68



Agirre
Bidekurutzeta, 18 / 76 12 64



Aisor
Bidekurutzeta, 7 / 76 04 10



Bergara Piel
Espaloia, 6 / 76 20 70



Lide
Bidekurutzeta, 19 / 76 10 74



Har-ezazu pa

Sa

Pankrazio

egune

Zatoia
Barrenkalea, 4 / 76 18 14



Jauja
Irizar, 3 / 76 14 95



Cristina
Arruriaga, z/g / 76 03 04




Janden
Irizar,3 / 76 20 03



Siaska
San Pedro, 10 / 76 10 39



Laket
Barrenkalea, 35 / 76 03 98



Bidekurutzeta, 7 / 76 04 10



**Mujika**
Barrenkalea, 1 / 76 29 91




**Ikus.Bi**
Irala, 5 / 76 53 09



**Xamartin**
Ibargarai, 20 / 76 59 29



# Hemen ageri diren dendetan **%10**eko deskontua izango duzu zure erosketetan.

*Astelehenean, maiatzak 12, denda hauek goiz eta arratsaldez egongo dira zabalik.*

**Yazki Gazte**
Ibargarai, 8 / 76 54 73



Arruriaga, z/g / 76 03 04



**Yazki**
Irizar, 1 / 76 16 54




**Prakak**
Burdinate, 1 6 76 40 06



**Zubikua**
Barrenkalea, 24 / 76 10 16

**Gallastegi**
San Pedro, 15 / 76 10 85



**Subijai**
Irizar, 1 / 76 42 41




BEDELKAR
BERGARAKO DENDARI, OSTALARI eta ZERBITZUEN ELKARTEA

# Ormazabal Hotela







Herriaren erdi-erdian,
goitik behera berriztutako
XVII. mendeko etxe dotore eta ederrean duzu
Ormazabal Hotela.
14 logela, guztiak berogailu, bainu eta telebistarekin.
Horretaz gain, zerbitzu ezin hobea jasoko duzu.
***Gosariak ere ematen ditugu.***

Zabaldu berria

Ormazabal Hotela **
Barrenkalea, 11. Tf. 76 36 50

# Aranzadi Ikastolak

bere 25. urteurrenean antolatutako ospakizunetan parte hartu duten herritar guztiei
## eskerrik beroenak
eman nahi dizkie eta, orobat beraien diru laguntza eskeini dioten hauei:

Bergarako Udala · Elgetako Udala · Antzuolako Udala · BEDELKAR · BILTOKI · LAZPIUR

Central Hispano · INDUSTRIAS FEGAR, S.A. · GOIZPER S. COOP. · Otsein

ZABALETA ERROTULOAK · LACOR · CONSUM · kutxa fundazioa fundación

Tratamientos Térmicos TTT · elay · metagra · ALTOS HORNOS DE BERGARA S.A. · Auzo Lagun ERKOP

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA · IRAUNDI · Aperribay industriak · OLABARRIA igeltserotza

# ABERTZALE ZINTZOAREN ERIOTZA GOGORATUZ

Bergara, 1947 urteko udabarria. Arrurriaga kalean, gaur amaika zenbakia daukan etxean, Agustin ta Carmen Larrañaga bizi zian ezkonbarri zoriontsu eta pozik, euren semean jaiotzari begira.

Baina laster goibeldu zan ango atsegina. Berriro, "Xabale", poliziak eraman zeban lotuta Donostiara. Iri ontan, ies egin naian il zan istripuz maiatzan zazpian tranbiak zapaldu ondoren. Albiste txar onek mindu zeban erri dana.

Urrengo egun baten, bazkalostean, erritar geienak bildu zien Espoloian azken agur beroena emateko, ezker ta eskui mota bat bezala. Egon da egon, noiz iritsiko gorpua. Jendea urduri. Ortan, aots kezkagarria: ileta-furgoia geldi zegoela luzaro Bonbulun.

Geroago, Donostia aldera itzuli zala. Sinistu ezinezko berria! Itxuraz, agintariak beldurtu zien ainbat gizon-emakume ikusita erri-sarreran. Ta guk, zer egin ustegabeko arazo artan?

Bizi guztian arpegia emana naiz arau oker danen aurka. Bai guda giroan eta nola ez pake garaian. Orrela, bizkor artu neban erabakia. Inguruan zegozenei esan notzen: Nai zabenak jarraitzeko neuri Arrurriagako etxerarte, bertan errezatu aitagurebat ta gero iritsi Martin Deunaren enparantzara. Danak, zalantza gabe, onartu zeben egitamu au.



MARRAZKIA: IKER BADIES KORKOSTEGI

Eguasten honetan, maiatzaren 7an, 50 urte bete dira Agustin Unzurrunzaga "Xabale" hil zela.

## Xabale

Gisa hontan, ixil ixilik, antolatu geben agerpide edo manifestazio benetan zorrotz ta arrigarria sasoi aretan. Baleike izan, estatu mailan ere, lenbiziko kexa orokorra guda ondoren.

Azkenez, bakarrik, igo nintzen Udaletxera, Rufino Beitia alkateari ta Kapitan Guardia Zibilari esatera: neu jabetzen nintzala gertaera arekin. Ta ezaguna izan arren, bixei eman notzen neure txartelak: Arrasateko bizilekukoa, baita Donostiako lanlekukoa. Onelaxe bukatu zan arazo tamalgarria.

Berrogetamar urte igaro arren, erriak gogoan zaitu bere biotzean. Xabale, goian bego!!

**REYES KORKOSTEGI**




ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

*Liburuak eta diskoak*

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

# Pazkuetan Bergaratik aldegingo duzu ala bertan ospatuko dituzu jaiak?



**Markel Agirre**

Bergaran geratuko naiz. Gehien gustatzen zaidana? Zezenak, enbolatuak. Txekorketara ere joango naiz. Parrandarik? Nahiko formal ibiltzen naiz.



**Moises Etxaniz**

Jaietan tabernan lan egin beharko dut. Ordu libretan kalera irten eta nolako giroa dagoen ikustea gustatzen zait, programari ez diot kaso haundirik egiten.



**Saioa Blazquez**

Bergaran geratuko naiz, kuadrilan primeran pasatzen dugu. Dantzetan, barraketan, kalean bueltaka... Oso ondo pasatzen dut.



**Antonia Ruiz**

Bergaran. Orain umeekin eta ez dut hainbeste disfrutatzen baina ondo daude. Gauez ez naiz irtetzen; seme-alabekin barraketara joan, kalean ibili..., horrelakoak.



**Petri Rodriguez**

Hemen geratzen naiz, jaietan oso ondo pasatzen dut. Dena gustatzen zait, ahalik eta ekitaldi gehienetara joaten ahalegintzen naiz.



**Juan Miguel Fernandez**

Jaietan Bergaran geratuko naiz, dantzaldiak gustatzen zaizkit batipat eta nahiko ondo pasatzen dut, ez da lehen bezala baina... ondo egoten dira jaiak.

AGIRREBEÑA
oinetakoak
arropa denda
lenzeria
Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

TABERNA ZAHARRA
Jatetxea
bazkari eta afariak
Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR

PANADEROKUA
JATETXEA
Kontxi Idigoras
Asteburuetan bertako babak eta sahieskia
SALBADOR, 10 ELGETA TLF. 76 82 73

BEREZITASUNAK:
BIZKOTXOAK
ERRELLENOAK
TOSTOIAK
MUJIKA GOZOTEGIA
Artekale, 3 BERGARA
☎ 76 10 34

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea
Bidekurutzeta, 29
☎ 76 22 90 - 76 26 75



## Iparraldea

“Timorreko herritarrak atzerritar gara gure aberrian”. Jose Ramos Horta, 1996. urtean Pakearen Nobel Saria jaso zuena, Euskal Herrira etorri da bisitan eta horixe esan du mikrofonoen aurrean. Nik gauza bera diot, “euskaldunak atzerritar gara geure aberrian”, Euskal Herriaren iparraldekoak Hegoaldean eta hegoaldekoak Iparraldean, behintzat bai eta bestela ere bai.

Bitan banatuta jarraitzen du Euskal Herriak. Europan mugak kendu omen zituzten 1992an eta orain, laster, Europa osoan txanpon berbera izan behar omen dugu, euroa.

Hala ere, bitan banatuta gaude, hegoaldeko eta iparraldeko gazteen arteko aldea handia da eta ez bakarrik bigarren hizkuntzagatik. Ez dut, Iparraldea hauteskunde kanpainan ari denean, banaketa administratiboa ere aipatu nahi. Hori baino sinpleagoa da. Hartuemanetan muga handia dago nere ustez, geuk jartzen duguna gainera.

Iparraldeko gazteak hor daude, baina ezezagunak dira. Lagun eta harreman gehiago dauzkagu hegoaldekoon artean, eurak han izango dituzten antzera. Udaran, gazteok jaien zerrenda handia izaten dugu buruan bisitatxo bat egiteko, Hernani, Lesaka, Iruñea, Lizarra, Gasteiz, Oiartzun, Ondarroa, Bilbo, Lekeitio..., baina Iparraldera joateko..., kosta, hondartza eta herrien ezaguerarekin. Bertan dago, baina urrun. Hartueman gutxi da hango euskaldunekin, aurtengo negua baino lehorragoak dira harreman horiek.

Igandean burutuko da, urtero bezala Senperen, Herri Urrats, Iparraldeko ikastolen aldeko jai eguna. Orduan aukera izango dugu, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Xuberoako gazte euskaldunak ezagutzeko. Milaka pertsona egonda ere, han ikusiko gara.

**Jon ALTUNA**



## Inkonpetentzia

Normala bihurtu den arren ezin ezaba nezake bere izaera zentzugabea. Zeren gure herri honetan “demokrata” ez dena “atzerritarra” dugu, eta bestela “solidarioa” edo “iraultzailea” bederen: guztiok ere, gure ustetan, giza legezko. Gutxi oso ezagutzen ditut beraien mozorroa alde batera utzi eta “niri gainontzekoen arazoak bost axola” argi eta garbi esaten dutenak.

Demokrata, ezkertiarra edo solidarioa den herri honi, berriz, gainontzekoen arazoak gehiegi axola ez zaizkiolakoan nago. Hori bai, urkoaren sufrimendua dakusagunean “pena” hartzen dugu (eta horrenbestean gaitzerdi). Ikusi besterik ez dago herrian antolatzen den edozein ekitalditan sortzen den fenomeno sozio-”logikoa”: gazteen arazoa denean gazteak soilik agertuko dira (eta arazoaren inguruko talde mugatu bat gainera), lantegiren bateko arazoa denean bertako langileak soilik agertuko dira (arazoa latza baldin bada zenbait familiarteko eta lagun ere bai), eta beste edozein arazo denean beste hainbeste. Norberari arazoa hurbileko gertatzen ez zaion bitartean paso egin (arazodunarekiko penarekin, noski), eta aurrera.

Hor ditugu egun hauetan Algodonera eta Tavesako langileak kalean. Zoritxarrez, alperrik ari dira herritarron laguntza espero badute. Egia gordina. Iaz garai honetan kalean zeuden eta aurten berriro. Agonia urtebetez luzatua, besterik ez. Eta noiz arte horrela?

Orain dela ez gehiegi bertako zuzendaritzarekiko loreak besterik ez ziren. Astekari honek ere oker ez banago egin zion tarterik. Azkenean ondo aski erakutsi digute beraien balioa: doilorrak bezain txarrak dira. Denok dakigu jakin bertan lehiakor izateko eskulan “garestiaren” oztopoa daukagula (beste zenbaiten artean); horregatik sakondu eta jorratu behar dira bide berri eta ausartak lehiakortasunerantz (adibideak ugari dira herrian bertan). Egoera honen aurrean Algodonera eta San Antonioko zuzendaritzak, berriz, arazoei aurre egin beharrean buztana hanka artean gorde eta bere gabeziak beste herrialde batzutako langileen izerdi merkeagoarekin estali ditu. Lotsagabeak. Bada garaia lehen loreak eskaini zitzaien bezela jende honi merezitako izendapena emateko: inkonpetente kuadrila.

**Iñigo IÑURRATEGI**

YAZKI
UME GAZTE
Neska eta mutil

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9-Teléfono, 761051
R.S.I. 209374-SS
BERGARA

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi BERGARA

LAZKANO
Oinetakoak
Barrenkale, 15
☎ 76 25 03

GOROSTi
Taberna
☎ 76 62 96
Zurrategi Plaza ANTZUOLA



## Aranzadi Ikastolako liburua

**Aranzadi Ikastolaren historia** jasotzen duen liburua argitaratu da egunotan. Liburuak 90 orrialde ditu eta bertan ikastolaren sorrera, 25 urteotan jasandako aldaketak, 1991n Bergaran ospatutako Kilometroak jaiari buruzko artikulu eta **argazkiak**, hainbat **ikasle ohiren iritziak**, oraingo **ikasle gaztetxoen marrazkiak** edota argazki pilo bat ikusteko aukera dago. **Ikastolen Elkarteak bultzatutako "Iturriak bilduma"** kolekzioaren barruan, liburuaren 1.500 ale kaleratu dira eta herriko hainbat dendatan salgai dago **1.500 pezetan**.



## Jarduneko gaztetxoak Garaion



Jardunek astebukaeretan Kartzela Zaharrean antolatutako ekitaldietan parte hartzen ari diren gaztetxoek **Garaion (Araban) igaro zuten maiatzaren 1eko zubia**. Eider Aranzabal, Nuria Barrero, Miren Ostoloza eta Nekane Gabilondo begiraleen laguntzaz, 11 urtetik 14 urtera bitarteko 31 gaztetxo izan ziren Garaioko baserri batean lau egunez, euren arteko harremanak sendotzeko helburuarekin. Eguraldia primerakoa izan zuten eta egindako irteerekin eta antolatutako jokoekin primeran pasatu zuten guztiek. Izango dute bai lagunei zer kontatu...

Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibaloi edota ziklismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikuluak: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...
BERGARA AKORT Publizitatea
San Lorentzo, 7 behea. ☎ 76 50 39

JAUJA KIROLAK
Irizar, 2
☎ 76 14 95

MUJIKA
Jantzidenda
Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91

## Erromeria Irukurutzetan

Aurten ere, jende ugari hurbildu zen maiatzaren lehen domekan **Irukurutzetan antolatutako erromeriara**. Eguraldiak lagunduta, jende piloa izan zen goizetik Irukurutzeta inguruan. Aspaldiko ohiturari jarraituz, goizeko 11etan **Bitoriano Gandiagak meza** eman zuen Pagobedeinkatuan eta, meza ostean, bertaratuek salda, txorizoa eta ardoa hartu ondoren, erromeria izan zen. Bazkalaurretik berriz erromeria izan zen Irukurutzetan eta bazkalostean oraindik ere jendeak dantzatzeko aukera izan zuen. Nobedade bezala, lehen Lesarrisoro baserriko nagusiak egiten zuen moduan, aurten **Alex Barrusok**, **hiru buelta** eman zizkion zaldi gainean gurutzeari, orduan erabiltzen zen kapa eta txistera gurutzeduna zeramatzala. Lehengo jolas zaharrak (txirikila eta kalderoia tartean) gogoratzeko aukera ere izan zen. Hurrengo urtera arte!!





## Zezenzaleen irteera

Pazkuetako txekorketari begira, Zezenzaleak taldekoek ohizko irteera egin zuten orain pare bat aste. Oraingoan **Biasterin** izan ziren herriko zezenzaleak; **Heredad Ugarte bodegak** bisitatu ondoren, eguerdi aldera **Santamaria anaien ganadu azterketa** egin zuten Pazkuetan Bergaran izango diren **David Calleja eta Jose Luis Berrero toreroen laguntzarekin**. 43 lagun izan ziren Biasterin eta bazkalostean zenbaitzuk txekorrak txuliatzeko aukera izan zuten. Ea horietako norbaitek alternatiba noiz hartzen duen... Datorren urteko Pazkuetan izango ote?

## Zertan *dihardute* ba?



**Iker Egidazu**, Miguel Altuna institutuko 18 urteko ikaslea izan da Jarduneko Gazte Taldeak antolatutako pegatina lehiaketako irabazlea. Lehiaketara, guztira, 131 esaldi aurkeztu dira. Partaideek euskara eta Pazkuen inguruko esaldi bat asmatu behar zuten. Sari modura 10.000 pezeta eskuratuko ditu Ikerrek eta berak asmatutako esaldiarekin 4.500 pegatina kaleratuko dira Pazkuetan. Pegatinak doan banatuko dira datorren ostiraletik aurrera. Ordurarte Gazte Taldekoek sekretuan gorde nahi dute esaldi irabazlea.

LIZAR
ALTZARIAK
Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, ateak, manparak...
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

# Jose Mari Arrondo

**Jose Mari Arrondo musikarekin zerikusia duten saltsa denetan murgilduta ikus dezakegu. 1960tik Udal Musika Bandako kidea da (tronpa jotzen du) eta azken urteotan Bandako presidentea dugu. Musika Eskolako bokala, Ibaiak Orkestan bateria jotzen du.**



***"Wagner da gustokoen dudan konpositorea eta boleroak kantatzen dituen Moncho, Elton John eta Beatles ere gustatzen zaizkit. Nire ametsa Vienara urte amaierako kontzertua ikustera joatea da"***

**- Definitu zure burua.**
- Alaia eta saltseroa.

**- Emakume batengan gehien apreziatzen duzuna?**
- Konportamendua eta bihotza.

**- Eta gizonezko batengan?**
- Laguna izatea.

**- Bateria ala tronpa jotzea nahiago?**
- Tronpa.

**- Musika lasaia ala martxosoa?**
- Biak.

**- Dantzan egitea gustatzen?**
- Asko.

**- Bandako kontzertuak Novedadesen ala Plazan?**
- Novedadesen, baina auditorio bat egongo balitz hobe.

**- Noiz izango dugu auditorioa?**
- Ez dut uste ezagutuko dudanik...

**- *Miserableak* eta *San Martinen estanpa*ren ondoren, zer?**
- Ezer ez, borondate falta dago eta.

**- Konpositorerik gustokoena?**
- Wagner.

**- Kantari bat?**
- Elton John eta boleroak kantatzen dituen Moncho.

**- Musika talde bat?**
- The Beatles.

**- Konpaktoa ala biniloa?**
- Konpaktoa.

**- Animalia bat?**
- Batere ez.

**- Kirolik egiten duzu?**
- Bai, bizikleta eta igeriketa.

**- Zenbat zigarro egunean?**
- Lau purotxo.

**- Filme bat?**
- Bailando con lobos.

**- Egunkarian irakurtzen duzun lehen gauza?**
- Aurreneko orria; gero atzetik hasten naiz.

**- Telebista programa bat?**
- Goenkale.

**- Engantxatuta al zaude?**
- Ez asko...

**- Mania bat?**
- Entsaiuetara ordu laurden lehenago joatea.

**- Zure bertute bat?**
- Jatorra naizela.

**- Eta defektu bat?**
- Hainbeste dira... Despistatua izatea.

**- Amets bat?**
- Vienara joatea, urte amaierako kontzertura.

**- Zer egingo du Elkorok?**
- Irabazi, 22 eta 19.

**- Pazkuetan, Saloura?**
- Ez!!! Festak, hemen.


Gaspar
JATETXEA, TXOKOLATEGIA, SELF-SERVICE-A
Barrenkale, 31 Tfnoa: 76 20 02 BERGARA

Kizkur
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

DENA 100etik
ZURE OPARIENTZAKO
Simon Arrieta, 3

GAZTELU
BURDINAKI DENDA
Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

## ETXEBIZITZA

**Etxea** salgai Mugertzan. ☎ 76 05 88.

**Berrizteko** dauden bi duplex salgai Bidekurutzetan. ☎ 76 57 36.

**Pisua** salgai Aranerrekan. ☎ 76 54 86.

**Etxebizitza** salgai Artzamendin. ☎ 72 08 98 (gauez).

**Pisua** salgai Donostian, Amaran. ☎ 76 31 79.

**Gela** bat konpartituko nuke. ☎ 76 91 33 (Iraide).

**Atiko** amueblatua salgai. ☎ 76 47 27.

**Pisua** alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 57 55.

**Duplex** txukuna alokairuan Zarautzen, udan. Hondartzatik gertu. ☎ 83 56 36.

**Pisua** alokairuan ekainetik aurrera Benidormen, hondartza ondoan. ☎ 74 20 31.

**Pisua** salgai herri-erdian. ☎ 76 25 31.

**Pisua** salgai Aranerrekan. ☎ 76 42 65 (gauez).

**Pisua** salgai Barrenkalean. ☎ 76 41 38.

**Garajea** alokatzen da San Lorentzon. ☎ 76 45 10.

**Pisua** salgai Mugertzan. ☎ 76 53 79.

**Pisua** salgai Zarautzen. ☎ 76 53 69/13 34 67.

## DENETARIK

**Ordenagailua** eta inpresora salgai. ☎ 36 03 89.

**Pekines** txakurkumak salgai. ☎ 79 83 50 (Karmen).

**Flanders** errepide bizikleta salgai. Shimano 105, 39.000 pta.. ☎ 76 06 75.

**Kontsola** bat salgai, bi mando eta 100 jokuko kartutxoarekin. ☎ 76 38 71.

**Canon** argazki kamarako hiru objetibo eta bi gorputz salgai. ☎ 76 39 96.

**Mendi** bizikletako John Luyck zapatilak salgai. 38 zenbakia. ☎ 76 31 34.

**Fagor** berogailua (20 litro) eta Sony bideo kamara salgai. ☎ 76 24 02.

**Arraindegia** saldu edo alokatzen da. ☎ 76 32 70.

**Citroen Visa** kotxea salgai. ☎ 76 05 37.

**Roller-Aloha** karabana salgai. ☎ 76 39 96.

**Motorreko** kaskoa salgai. ☎ 76 17 49 (gauez).

**Flanders** mendiko bizikleta salgai. ☎ 76 47 94.

**Renault 5** kotxea (SS-O) salgai. ☎ 76 10 91 (gauez).

**Renault 11** kotxea (SS-AC) eta Vespa 200 (VI-I) motorra salgai. ☎ 76 08 51.

**Pultsometro** bat erosiko nuke. ☎ 76 39 36 (Peru).

## LANA

**Mate,** fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 70 40.

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Lanak** ordenadorez pasatzen ditut. ☎ 76 27 59 (Inma).

**Klinika** auxiliar batek gaixoak edo helduak zainduko lituzke. ☎ 76 64 47.

**Mate,** fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 44 34.

**Garbiketa** lanak egingo nituzke. ☎ 76 71 21.

**Garbitzaile** bat behar da. ☎ 76 41 06.

**OHO** klaseak ematen ditut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

**Mate**, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 24 31.

**OHO** eta BBBko klaseak ematen ditut Bergaran. ☎ 76 33 26.

**Batxilergo** teknologikoko (lehen maila) elektronika irakaslea behar da. ☎ 76 39 15.

**Irlandar** batek ingeles klaseak gaztelerazkoekin elkartrukatuko lituzke. ☎ 907898339 (Catherine).

**Andrea** eskaintzen da sukaldari, garbiketa edo umezain lanetarako. ☎ 76 70 85.

**Enpresaritzan** diplomatuak OHOko klaseak ematen ditu. ☎ 76 47 67 (Nere).

**Etxeko** lanak egin edo haurrak zainduko nituzke. Esperientzia. ☎ 76 70 15 (8etatik aurrera).

LARREA
TABERNA
Kale Barren, 17
ANTZUOLA

ARDATZA
Brikolaketa
Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93
• Ateak eta zokaloak
• Horma armairuak
• Sarrailak eta manilak
• Koadroen enmarkazioak
• Era guztietako moldurak
• Apalak
• Kajoiak

IBARGUREN PENTSUAK
BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak
PENTSUAK Biona BANATZAILEA
San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura
Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

# BONOFOTOA



M. A. ELKOROBEREZIBAR



## Maria Begoña Urkizu

**Maria Begoña Urkizu**k jaso du oraingo honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu duelako, eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkian agertzen ziren balkoiak non dauden galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Barrenkalea eta San Pedro kalea** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Maria Begoña Urkizu**ri eman dizkiogu. Zorionak!!

***Zein da jauregi honen izena?***

______________________________

**Izena:** ____________ **Abizena:** ____________ **Tfnoa:** ____________

**Saria**
**10.000 pzta.**

**Moztu paper hau eta**
**ekarri astebete baino lehen**

**BERRIGARA**
**Errotalde Jauregia Bergara**

# Labegaraietako FUTBITO Txapelketa

| 1 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. A Ze Flaxa Etxagi | 56 | 21 | 108 | 38 |
| 2. Errotagain | 49 | 21 | 90 | 54 |
| 3. Jauja OH Zerezos | 42 | 22 | 97 | 60 |
| 4. Bar Canalejas | 41 | 21 | 90 | 57 |
| 5. Bildurbarek Opel/Lam | 26 | 22 | 87 | 90 |
| 6. Azpeitxi Jatetxea | 26 | 21 | 67 | 66 |
| 7. Arloteak/Oilagorra | 24 | 21 | 76 | 54 |
| 8. Pagomendi | 24 | 22 | 57 | 72 |
| 9. Madura Industrias Goi | 23 | 20 | 55 | 81 |
| 10. Ogizun | 22 | 21 | 61 | 94 |
| 11. Mongatxurra | 21 | 21 | 54 | 78 |
| 12. Ortzi | 21 | 21 | 45 | 66 |
| 13. Ufala | 12 | 21 | 45 | 85 |

| 2 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Etxagi | 41 | 21 | 85 | 65 |
| 2. Kayak Os Jardineiros | 36 | 22 | 89 | 65 |
| 3. Artusamak Bergatrans | 34 | 22 | 80 | 65 |
| 4. Agiñaspi | 33 | 21 | 63 | 62 |
| 5. La Juve | 32 | 22 | 77 | 67 |
| 6. Haltzari | 32 | 21 | 60 | 53 |
| 7. Ezinleike | 28 | 22 | 68 | 83 |
| 8. Agirrebeña Jatetxea | 27 | 20 | 70 | 65 |
| 9. Eri | 26 | 20 | 62 | 79 |
| 10. Soropotroak | 25 | 19 | 46 | 46 |
| 11. Indargorri | 23 | 22 | 56 | 107 |
| 12. Autoberezi | 19 | 21 | 73 | 99 |
| 13. Uve Bikoitza Jam | 0 | 0 | 0 | 0 |

| 3 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Guadalest | 52 | 22 | 89 | 37 |
| 2. FAC | 47 | 21 | 93 | 45 |
| 3. Nekrofilikos | 42 | 22 | 93 | 81 |
| 4. PJS | 38 | 22 | 85 | 62 |
| 5. Jakina Patxaran Team | 36 | 22 | 88 | 67 |
| 6. Txipiron | 32 | 20 | 67 | 52 |
| 7. Nahikari Hooligans | 30 | 23 | 72 | 66 |
| 8. Moskis | 29 | 23 | 71 | 48 |
| 9. Igandekoak | 21 | 20 | 43 | 71 |
| 10. MRW | 20 | 22 | 69 | 87 |
| 11. Ganbara | 19 | 22 | 70 | 86 |
| 12. EH Biterrak | 16 | 21 | 47 | 74 |
| 13. Construcciones Bergara | 0 | 0 | 0 | 0 |

| 4 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Manitou | 66 | 22 | 188 | 29 |
| 2. Arbe Kirolak | 56 | 23 | 135 | 49 |
| 3. Matxakategi | 39 | 22 | 89 | 49 |
| 4. Etengabe | 39 | 22 | 64 | 55 |
| 5. SLO | 37 | 21 | 81 | 46 |
| 6. Xurrupak | 30 | 21 | 44 | 78 |
| 7. Pata Negra | 26 | 22 | 48 | 75 |
| 8. Komando Piperrak | 25 | 21 | 66 | 96 |
| 9. Panoramix | 23 | 21 | 71 | 140 |
| 10. Amilotx | 19 | 23 | 46 | 83 |
| 11. Polideportivo Taberna | 16 | 22 | 48 | 127 |
| 12. Aldoka Maldoka | 11 | 22 | 49 | 80 |
| 13. Osintxu | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 14. Pittixak | 0 | 0 | 0 | 0 |

## Jokoz kanpo



### Eneko Ugalde
***Moskis***

**Zer moduz txapelketa?**
Antolatzaileekin arazo asko izan dugu. 10 puntu kendu dizkigute eta hartutako erabakiekin ez gaude batere ados.

**Zure taldearen gauzarik onena?**
Jatortasuna eta giro ona. Txarrena domeka goizetan beti galtzen dugula.

**Kanporatu zaituzte inoiz?**
Aurten ez, baina beste urte batzuetan bai.

**Partiduak goizez ala arratsaldez?**
Arratsaldez.

**Txapelketako talderik onena?**
Geurea, Moskis taldea.

**Jokalaririk onena?**
Harkaitz Arana.

**Sartu duzuen goleadarik handiena?**
9 eta 2 Patxaran Team taldeari.

**Eta jasotakoa?**
10 eta 4 Nekrofilikosek.

**Ze postutan amaitzea espero duzue?**
Erdialdean.

**Liga profesionaleko jokalaririk onena?**
Ronaldo.

**Munduko kirolaririk onena?**
Michael Jordan.

**Euskal Herrikoa?**
Indurain.

**Jateko plater bat?**
Antolaketa Batzordea saltsan.

## ■ EMAITZAK

| | |
|---|---|
| Polideportivo Taberna-Manitou | 1-16 |
| Amilotx-Xurrupak | 1-2 |
| Pagomendi-Jauja OH Zerezos | 6-2 |
| Matxakategi-Etengabe | 7-3 |
| Pata Negra-Aldoka Maldoka | 2-2 |
| Etxagi-Artusamak | 3-3 |
| Kayak Os Jardineiros-La Juve | 2-2 |
| Indargorri-Agirrebeña Jatetxea | 5-8 |
| Amilotx-Manitou | 1-8 |
| Polideportivo Taberna-Matxakategi | 1-5 |
| Pata Negra-Etengabe | 1-1 |
| Nekrofilikos-EH Biterrak | 5-4 |
| Moskis-Guadalest | 1-1 |
| PJS-MRW | 6-2 |
| Indargorri-Autoberezi | 4-1 |
| Ufala-Bar Canalejas | 0-20 |
| Etxagi-La Juve | 4-4 |
| Artusamak-Eri | 2-6 |
| Ezinleike-Kayak Os Jardineiros | 1-6 |
| Haltzari-Agirrebeña Jatetxea | 4-3 |
| Errotagain-Azpeitxi Jatetxea | 4-3 |
| Ogizun-Arloteak/Oilagorra | 2-8 |
| Ortzi-Mongatxurra | 1-2 |
| Bildurbarek-A Ze Flaxa Etxagi | 3-8 |

## ■ PARTIDUAK

**Zapatuan barruan**

**09:00:** Igandekoak-Patxaran Team • **PJS**
**10:00:** Moskis-PJS • **Igandekoak**
**18:00:** Bildurbarek Opel/Lam-OH Zerezos • **Ufala**
**19:00:** Ufala-Arloteak/Oilagorra • **Agirrebeña**
**20:00:** La Juve-Agirrebeña Jatetxea • **Arloteak**

**Zapatuan kanpoan**

**09:00:** Amilotx-SLO • **Panoramix**
**10:00:** Polideportivo Taberna-Panoramix • **Amilotx**
**11:00:** Pata Negra-Komando Piperrak • **Poli. Taberna**
**16:00:** Azpeitxi Jatetxea-A Ze Flaxa • **Bar Canalejas**
**17:00:** Ortzi-Bar Canalejas • **A Ze Flaxa Etxagi**
**18:00:** Ezinleike-Agiñaspi • **Ortzi**
**19:00:** Soropotroak-Kayak Os Jardineiros • **Ezinleike**

**Domekan barruan**

**09:00:** FAC-Txipiron • **PJS**
**10:00:** PJS-Txipiron • **FAC**
**11:00:** Polideportivo Taberna-SLO • **Txipiron**
**12:00:** Matxakategi-Komando Piperrak • **Xurrupak**
**13:00:** Aldoka Maldoka-Xurrupak • **Matxakategi**
**16:00:** Igandekoak-EH Biterrak • **Ufala**
**17:00:** Arloteak/Oilagorra-Ortzi • **EH Biterrak**
**18:00:** Nekrofilikos-MRW • **Patxaran Team**
**19:00:** Patxaran Team-Guadalest • **Mongatxurra**
**20:00:** Ufala-Mongatxurra • **Guadalest**

**Domekan kanpoan**

**09:00:** Madura Industrias Goi-Pagomendi • **Autoberezi**
**10:00:** Haltzari-Autoberezi • **Madura Industrias Goi**
**11:00:** Etxagi-Agiñaspi • **Haltzari**
**12:00:** Errotagain-Bar Canalejas • **Agiñaspi**
**13:00:** Eri-La Juve • **Errotagain**
**16:00:** Soropotroak-Ezinleike • **Artusamak**
**17:00:** Artusamak-Agirrebeña Jatetxea • **Soropotroak**
**18:00:** Ogizun-Bildurbarek Opel/Lam • **Agirrebeña**

## TXINPARTAK

### Piszinak itxita

Zapatuan 15:00etatik aurrera Udal igerilekuak itxita izango dira arratsaldean zehar Gipuzkoako Udaberriko Igeriketa Txapelketa jokatuko baita. Bestalde, goizeko 9etatik aurrera Osintxuko pilotalekuan Deba Garaiko Frontenis Txapelketaren 3. jardunaldia jokatuko da.

### Infantil mailako futbolariak bikain

Datorren zapatuan goizeko 11:30etan BKEko infantilek Union Txikiren kontra jokatuko dute eta maila horretako Gipuzkoako txapelketako lehenengo postua izango dute jokoan. BKEkoek 3 punturen aldea dute eta berdinketa lortuz gero, nahikoa izango zaie lehen postuari eusteko.

# Bergara Hiriaren finalak ostegunean jokatuko dira


Muruamendiaraz eta Galartza martitzeneko partiduaren ostean.

**Bergara Hiria** pilota txapelketaren finalak datorren ostegunean arratsaldeko 7:30etan jokatuko dira. Senior mailako finalean Iker Muruamendiaraz bergararrak eta Galartzak, Apezetxea eta Errastiren aurka neurtuko dituzte indarrak. Muruamendiarazek eta Galartzak torneo bikaina egin dute eta finalerdietan Yaniz eta Auskinen aurka errez irabazi zuten. Ugarrixako aurrelariak partidu borobila egin zuen eta finala jokatzeko sasoi onean dagoela esan digu. *"Torneoa jokatzen 3 urte daramatzat eta aurtengoan inoiz baino hobeto nabil. Halere, Apezetxea eta Errasti pilotari gogorrak dira eta izerdi asko bota beharko dugu irabazi nahi baldin badugu".*

Finalerdiak ikusteko Udal Pilotalekua leporaino bete zen eta Muruamendiarazek txalo asko jaso zituen erakutsitako jokoarengatik. *"Publikoaren animoek konfidantza ematen didate eta eskertzekoa da laguntza hori. Finalerako pronostiko bat? ez dakit, baina garbi dago partidu gogorra izango dela"* esan digu Ugarrixakoak.

Senior mailako finalaren aurretik promesen finala jokatuko da eta Legorburu eta Nalda gasteiztarrek, Saralegi eta Gastesiren aurka neurtuko dituzte indarrak. Igor Gutierrez bergararra promesa mailako finalerdietan kanporatua izan zen. Finala zuzenean ikusten ez dutenek ETBtik ikusteko aukera izango dute zapatu eguerdian.

Bestalde, Gipuzkoako Herri Arteko txapelketan BKEko pilotariek bi partidu galdu eta bakarra irabazi zuten Zumarragaren aurka jokatutako joaneko partiduan. Itzulerako partiduak bihar, zapatua, gaueko 10etan jokatuko dira.



## LTB lider nesken futbitoan

Lagunak Areto Futboleko Elkarteak antolatutako nesken futbito txapelketako lehen itzuliko partidu guztiak jokatu dira dagoeneko eta LTB taldea da 20 punturekin liderra (argazkian ikus ditzakezue jokalariak). Bigarren postuan, 18 punturekin, Power Rantxeras dago eta 3. postuan, 16 punturekin, Potzu Ta Zapaburuak. Zortzi partidu jokatu ondoren Aitziber Montaña da pitxitxia (21 gol). Asteburu honetan hasiko da bigarren itzulia eta lehenengo lau postuetan sailkatzen direnek finalerdiak jokatuko dituzte.

## Karteldegia

**FUTBOLA**

♦ **Bergara-Añorga**
Ohorezko mailako kadeteak.
Zapatua. 15:30. Ipintza.

♦ **Bergara-Real Union**
Preferente maila.
Zapatua. 17:15. Ipintza.

**SASKIBALOIA**

♦ **Bergara-Ordizia**
Senior neskak.
Zapatua. 16:15.
Kiroldegia.

♦ **Bergara-Larramendi**
Junior mutilak.
Zapatua. 12:15.
Kiroldegia.

**PILOTA**

♦ **Bergara-Zumarraga**
Gipuzkoako herrien
arteko txapelketa.
Zapatua. 10:00.
Udal pilotalekua.

**NESKEN 3. FUTBITO TXAPELKETA**

♦ **Power-PWA**
Domeka. 16:00.
Miguel Altuna.

♦ **LTB-The Hurricanes**
Domeka. 16:00.
Miguel Altuna.

♦ **Nahikari TK-Blue Star**
Domeka. 17:00.
Miguel Altuna.

♦ **Potzu-Gu Geu**
Domeka. 17:00.
Miguel Altuna.

# Ramon Conde

## Saskibaloi entrenatzailea

**BKEko senior mailako saskibaloi taldeak Gipuzkoako liga irabazi du. Partiduak jokalariek irabazi arren entrenatzailearen lana ezinbestekoa da emaitza onak lortzeko.**

**- Espero zenuen lehen postua lortzea?**

- Ez, aurten bigarren urtea genuen maila honetan eta joan zen urtean laugarren geratu ginen. Halere, denboraldi osoan zehar aurrean ibili gara eta lehen postua eskura izan dugu.

**- Mailaz igotzeko txartela lortu duzuen arren, igotzeko asmorik badaukazue?**

- Igotzen saiatuko gara, baina erabakia hartu aurretik ondo pentsatu behar dugu. Mailaz igotzen badugu arbitrajetan eta garraiotan askoz ere diru gehiago gastatu beharko dugu. Maila autonomikoan Hego Euskal Herri osoko taldeek jokatzen dute eta Nafarroa aldera bidaia asko egin behar ditugu. Urte osorako aurrekontua miloira igoko litzateke eta zailtasunak izango ditugu diru hori lortzeko. Halere, aurrekontua osatzeko dirulaguntza bila hasi gara.

**- Mailaz igotzen baduzue jokalari berriak ekarri beharko dituzue ezta?**

- Bai, taldea indartu egin beharko dugu, batez ere barruko jokoari dagokionez. Oraindik ez dakit zeintzuk etorriko diren, baina nire asmoa datorren urteko taldean aurten igoera lortu duten jokalari guztiak izatea da. Bergaran Urisabel izan ezik ez dago jokalari alturik eta agian kanpoan bilatu beharko ditugu.

**- Antolaketa lanetarako nahikoa jende daukazue?**

- Ez, jende gutxi gabiltza eta gainera mailaz igotzen badugu lan egiteko prest dagoen jendea beharko dugu. Arriskutsua izan daiteke hurrengo urteko lan guztiak talde nagusian zentratzea eta gainontzekoei kasu gutxi egitea, beste urte batzuetan gertatu izan den moduan. Aurten bost talde atera ditugu eta datorren urterako sei ateratzeko asmoa dugu.

**- Zela hasi zinen entrenatzen?**

- Duela 6 urte kadete mailako nesken taldea entrenatzen hasi nintzen. Aurretik delegatu lanak egin nituen eta azkenean seniorra entrenatzen bukatu dut. Saskibaloian ez dut jokatu inoiz, txikitatik gustatzen zaidan arren.

**- Zer esango zeniguke zure taldeari buruz?**

- Taldearen gauzarik onena dagoen giroa da. Urte osoan zehar oso harreman ona izan dugu eta hori kantxan isladatu da.



"Taldeko giroa bikaina da".

**"Saskibaloian, nahiz eta gustatu, ez dut inoiz jokatu"**



Argazkia: Beatriz Leal

# Eskola publikoko ikasleak, 1975

Goiko erretratuan irripartsu agertzen diren neskak OHOko 6. mailan ari ziren argazkia atera zenean, 1975. urtearen inguruan. Ikasleek 12 bat urte izango zituzten orduan eta zintzo-zintzo argazkilariaren aurrean jarri ziren eskolako gimnasioan, Poligonoan, gaur egun Aranzadi Ikastolak duen edifizio berean. Hogei urte baino gehiago igaro dira erretratua atera zenetik, baina ziur bat baino gehiago ezagutzen duzuela beheko zerrenda irakurri baino lehen. Ea zelako fisionomistak zareten...

Badaezpada, hauek dituzue argazkian agertzen direnak:

**Goian**: Izaskun Telleriarte, Miren Mujika, Nerea Luarizaristi, Jasone Zumelaga, Raquel Rodriguez, Elena Ruiz, Isabel Rajado eta Laura Larreategi.

**Erdian**: Pilar De Pedro, Erika Mendibil, Ana Carmen Mulas, Consuelo Rodriguez, Isabel Sierra, Mari Carmen Rico, Mari Nieves Peña, Julia Vinuesa eta Irene Larrañaga.

**Jarrita**: Maria Jesus Millan, Mari Puy Rodriguez, Maria Pilar De la Mata, Beatriz Leal, Francisca Moto, Maria Luz Medrano, Nekane Nafarrate eta Anabel Sanz.

Industria hornikuntzak
UNIFE
Industriaren alde
MEMESA S.L.
Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21
Zumelaga
JATETXEA
ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

# oskorri

+ KUKUBILTXO + KEPA JUNKERA

25

kantu urte



**IPINTZA BATXILERGO INSTITUTUAren**
**25. urteurrena**

Maiatzaren 9an ostiralean
Herriko pilotalekuan Gaueko 10:30etan
Antolatzailea: Ipintza Batxilergo Institutua





*Jaixak datozela eta denok ondo pasa eta dotore ibil zaitezten, zatozte ZUBIKUA jantzidendara.*



*Gainera orain kalerako, hondartzarako eta mendirako kalitate haundiko moda berria.*

Kilt
DIESEL JEANS AND WORKWEAR
TCN DISEÑO TOTON COMELLA
CARAMELO JEANS
ST. TROPEZ GERRY
SOFT NATURAL PROCESS
ZONE A NATURAL HISTORY

ZubiKua

*Barrenkalea, 24* BERGARA *Tf. 76 10 16*

sofa leku

a eme... interiores



centro hogar MUEBLES



grupo

# Amuebladora Mondragonesa

**a. eme. interiores,** Garibai, 9 - ARRASATE - Tel. 79 15 03
**centro hogar muebles,** Zigarrola, 1 - ARRASATE - Tel. 77 14 92
**sofa leku,** Zigarrola, 1 - ARRASATE - Tel. 77 14 92